



2014KO URTARRILAREN 30EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hamalauan, iluntzeko zapi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Inazio Estensoro Eskisabel, Milagros Madrazo Rada eta Juan Manuel Serna Portugal.

Andoitz Garmendia Zubeldia eta Felix Urkola Iriarte zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziaren kargu uztearen berri ematen da. Andoitz Garmendia Zubeldiak idatzia aurkeztu du eta bertan esaten du bere egoera pertsonala dela medio hartutako betekizunak betetzeko arazoak izango dituela eta horren aurrean kargua utzi egiten duela.

Honen aurrean, Andoitz Garmendia Zubeldiak utzitako kargua betetzeko, dagokion legezko prozedura jarriko da abian.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

II.- AURREKO AKTA.-

Bertaratutako onespenera aurkeztzen da 2013ko abenduaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- HAINBAT ERAKUNDETAN UDALAREN ORDEZKARI IZENDATZEA.-

Alkateak esaten du Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziaren kargu uztea dela eta, honek zeuzkan karguetarako ondorengo proposamena egiten duela:

- Sasieta Mankomunitatean, Urtzi Iruin Arruti.
- GOIMENen, Alkatea bera.



- Tolosako Hiltegian, Alkatea bera.
- Enirio-Aralar Mankomunitatean, Alkatea bera.
- Lazkao Lantzen S.A.n, Arantxa Bengoa Gorosabel.

Bestalde eta Tokiko Gobernu Batzarrerako partaide izateko Juan Manuel Serna zinegotziari egiten dio gonbita.

Serna zinegotziak erantzuten dio pentsatuko duela.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du legegintzaldi hasieran, karguen banaketa egin zenean, 2 ordezkari zeuden erakundeetarako bigarrena beraien alderdikoa izatea eskatu zutela eta horrela egin ez zenez abstenitu egin zirela, eta orain ere, arrazoi berberetatik, abstenitu egingo direla.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du beraiek ere orduan abstenitu egin zirela eta orain ere abstenitu egingo direla.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Udal Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (Bildu), aurkako boturik gabe eta 5 abstentzioz (EAJ, PSE-EE) proposamena onartu egiten du.

V.- GIASSEL-EKIN HITZARMENAREN LUZAPENA.-

GIASEL – Gipuzkoako Astozaleen Elkarte eta Lazkaoko Udalaren arteko hitzarmena 2003ko maiatzaren 12an egindako osoko bilkuran onartu zen. Hitzarmen horren baitan Lazkaoko Udalak 24.885 m²ko lursaila utzi zion GIASELi, prekarioan.

Hitzarmena 10 urterako izenpetu zen eta bertan hitzarmenaren luzapena aurreikusten da, bi aldeen adostasuna egon ezker. Hau honela, eta hamar urteko epea igaro denez, GIASELek beste 10 urterako luzapena egitea planteatu du.

Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, eta Hirigintza Obra eta Zerbitzuen batzordearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako erabakiak hartzen ditu:

- 1.- GIASELi 24.885 m²ko lursaila prekarioan uzteko hitzarmena, bere espedientean dagoena, beste hamar urterako luzatzea.
- 2.- GIASELekin hitzarmenaren luzapena izenpetzeko Alkatea ahalmentzea.

VI.- BEREN ETXEBIZITZA BAKARRA GALTZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK BABESTEKO LAGUNTZA JURIDIKOA ESKAINTZEKO GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA GIPUZKOAKO ABOKATUEN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKIMENDUA.-

Beren etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan dauden Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen eskubideak babesteko laguntza juridiko integraleko zerbitzua eskaintzearen, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak lankidetzaren hitzarmena izenpetu dute.



Hau horrela izanik, udal honetako Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatzaileak hitzarmen honi atxikitzea proposatu du.

Honen aurrean, gaia aztertu ondoren, eta Gizarte Zerbitzuen Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoaren arteko lankidetzarako hitzarmenari atxikitzea erabakitzen du, hitzarmenaren xedea honako izanik: Gipuzkoako Lurralde Historikoan bizi diren pertsonen eskubideak babesteko laguntza juridiko integraleko zerbitzua eskaintzea; pertsona horiek (I) beren etxebizitza bakarra galtzeko arriskuan egon behar dute; (II) gizarte bazterketaren mugan, diru erreklamazioen ondorioz, horien sorburuan hipoteka bidez bermatutako mailegua egon ala ez egon; eta (III) fede oneko zordunak izan behar dute.

VII.- ABORTOAREN GAIAREN INGURUKO MOZIOAK.-

Abortuaren gaiaren inguruan udal honetan aurkeztutako mozio ezberdinen aurrean mozio bat adosten saiatu dira udal honetan ordezkariak duten hiru alderdiek eta adostasun hori lortu egin da.

Adostutako mozioak honela dio:

"LAZKAOKO EAJ-PNV, PSE ETA BILDU UDAL TALDEEN MOZIOA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZKO LEGEAREN ALDARAZPENARI BURUZ

2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa, duela lau urte onartu zen adostasun sozial eta politiko zabalarekin.

Martxoaren 3an onartutako 2/2010 Lege Organikoak Kontzebituaren eta emakume haurdunaren oinarriko eskubideen eta osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldia eteteko baldintzak eta betebeharrak finkatzen ditu arlo publikoan.

Bere barnean bizitza sexual eta erreproduktiboaren inguruko pertsona ororen erabakitzeko eskubidea aitortzen da, beste pertsonen eskubideen errespetuaren barnean eta legearen naiz ordenamendu publikoaren mugen barnean. Honela amatasunaren erabaki eskubidea aitortzen da, berarekin ez soilik haurdunaldiaren aitortza eginez, berau kontzienteki eta arduraz egin dela esanez eta erabakia errespetatua izan behar dela aitortuz.

Lege hau orain 25 urte zegoen erregulazio baten ordezkaria da, berau emakumeen baberako aurrerapen bat izan zen eta sortze, eztabaida eta onarpena parlamentuan ordezkariak zuten talde politiko gehienek oniritziarekin egin zen. Hau berdintasun batzordeko azpitalde baten lanaren ondorengoa izan zen non osasun-gintzako, bioetikako profesional eta legeriako adituek osatutako 30 pertsona inguruko adituen talde partehartzea izan zuen. Honek Europako giza eskubideen epaitegiko naiz epaitegi konstituzionaleko lege erregulazioa txertatu zuen segurtasun juridikoa indartuz haurdunaldiaren borondatezko etetearen gaian. Honez gain, OMS, CE, Estatuko aholkularitza eta ONU-ko nazioarteko organismoetan zeresana eman zuen ondorio eta gomendio gisan.



Une honetan, PPko gobernuak Alberto Ruiz Gallardon bere Justizia ministroaren eskutik Lege Organikoaren aurreproiektu bat aurkeztu du, zeinen bidez Estatuan sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez etetearen inguruan indarrean dagoen legeria aldarazi nahi duen, aldarazpen horrek arbuioa Alderdi Popularraren alderdi barruan ere jaso duelarik.

Lege honek 30 urteko atzerapena suposatuko du eta gainera emakumeen osasun sexual eta erreproduktiboaren eta borondatezko haurdunaldiaren alorrean nazioartean hartutako hainbat konpromezuen kontra doa.

Gauza jakina da (eta Munduko Osasunaren Erakundeak era hala onartzen du) lege murriztaileek ez dutela abortu-kopurua gutxituko. Haurdunaldia etetea erabakitzen duten emakumeak klandestinitatera edo atzerrira joatea behartuko ditu eta emakume izateagatik jasotako bazterketari klase edo egoera sozio-ekonomikoarena batuz.

Egin nahi den aldarazpena gizartearen zein alderdi politikoen gehiengoaren irizpideen kontrakoa da.

2/2010 Lege Organikoak lortu zuen adostasun zabala kontuan hartuta eta PPk une honetan Madrilan tramitatzen ari den Lege Aurreproiektuak jaso duen arbuioaren aurrean, udal talde guztiek udal batzan eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten dugu honako

MOZIOA

- 1.- Lazkaoko Udalak Estatuko Gobernuari eskatzen dio Estatuko Gobernuak 2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa, sexu eta ugalketa osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzkoa aldarazteko Lege Organikoaren Aurreproiektua erretiratzea.
- 2.- Honako pleno akordioa Estatuko Gobernuari eta Diputatuen kontseiluari."

Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, mozioa onartzea erabakitzen du.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak sei minutu gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

